

JARDUERA- MEMORIA

2020



2020

JARDUERA-MEMORIA

Aurkibidea



1. Agurra	6	7. Proiektuak eta jarduerak	11
2. Aurkezpena eta fundazioaren helburuak	7	7.1 Diametro 200	11
3. Jardun-esparruak eta -eredua	8	7.2 Kultura musikala	13
4. Barne-garapena	8	7.3 Ondare immateriala	13
5. Kanpo-garapena	9	7.3.1 Mendia	14
5.1 Erakunde-arlokoa	9	7.3.2 Itsasoa	14
5.2 Orona Ideo	9	7.3.3 Pilota	15
5.3 Ingurukoa (Orona Fundazioa Gizarterantz)	10	7.3.4 Euskara	15
6. Ekarpen-eredua	10	7.3.5 Euskal zibilizazioa	16
		7.4 Akademikoa	17
		7.5 Kohesio soziala	19
		8. Kudeaketa beste alor batzuk	23
		8.1 Ekitaldien kudeaketa	23
		8.2 Oronaren elikadura-eredua	23

1. Agurra

Europako proiektu sozioenpresarial bat gara, pertsonetan oinarritua, pertsonen arteko distantziak laburtuz pertsonak hurbiltzea helburu duena. Komunitatean nabarmen berritzen duen pertsonaltalde baten hurbiltasunaren bidez egiten dugu hori. Balio horiek dira, printzipio kooperatiboekin batera, partaide gaituen ingurune sozialarekiko dugun erlazioaren oinarria.

Konpainia gisa, pertsonen mugikortasuneko kidea gara, eta igogailuen balio-kate osoan parte hartzen dugu.

Gure erakundea konpromisoaren bidez balio guztia emateaz arduratzen diren profesionalak osatzen dute. Gure gizarteari solidaritatea eta lankidetzaren emateko konpromisoa du Oronak.

Gizarte-erantzukizun korporatiboaren barnean, funtsezkoak dira errespetua eta jasangarrtasuna zaintzeko jardunbide egokiak. 2020an, COVID-19ak sortutako pandemiaren testuinguruan, lanean jarraitu dugu alderdi horretan aurrera egiteko, sentsibilitate hori gure jarduera osoan sartuz, jasangarrtasuna gure jardueraren ardatz izaniki.

Testuinguru horretan, **Orona Fundazioak** egiteko garrantzitsua du, gizarteari zerbitzu ematen baitiogu, eta, halaber, gure proiektua osatzen duten pertsonen. Orona Fundazioaren ekintzak erakundeetara, gizartera, arlo sozioekonomikora eta hezkuntzara iristen dira. Aurten, bereziki, gizarte-kohesioaren eta lerro akademikoaren lan-ildoak indartu ditugu, pandemiak gure gizartean eragin dituen ondorioak arintzen laguntzeko.

2020an, zazpi urteko presentzia- eta jarduera-aldia bete du **Orona Ideok**. Bera da gure berrikuntza-ereduaren oinarria. Jasangarrtasunaren alde egiten dugun lanaren adierazgarria da, eta etengabe gizartearekin harremanetan egoteko aukera ematen digun ekosistema bat sortzen du. Etorkizunarekiko



eta ingurunearekiko konpromisoa funtsezkoak dira Oronarentzat, eta, ikuspegi sozialetik eta osasunaren ikuspegitik bizi dugun egoera konplexu honetan, ingurune kolaboratiboaren bitartez jakintza sortzearen alde egiten dugu, unibertsitatearen, ikerketaren, enpresaren eta gizartearen arteko harremanean oinarrituta.

Memoria honetan, alderdi horiek guztiak azaltzen ditugu, gure ekintzek jasangarrtasuna indartuko dutelakoan enpresa-munduan eta gizartean.

Aurrerapauso sendoak ematen jarraitzen dugu, inguruabarrak gorabehera, etorkizun hobea sortzeko.

Javier Mutuberria

Oronako zuzendari nagusia



2. Aurkezpena eta fundazioaren helburuak

Estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Orona Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-arlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzeko jarduerak eta ekimenak egitea.

Ildo horretan, fundazioaren helburuek barnean hartzen dute hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzea eta kudeatzea; hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak antolatzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak babestea eta antolatzea.

Horrez gain, fundazioaren helburua da ekonomia soziala eta kooperatibismoaren ezaugarrien hedapena sustatzea eta babestea, lan-munduan sartzea sustatzea, eta era guztietako kultura-, gizarte-, ongintza- eta laguntza-jarduerak babestea.

Fundazioaren bitartez, Oronak gizartearekin duen konpromisoa indartu nahi du, oinarriak sustatuz bere hezkuntzako, eskualdeko, erakundeko, nazioarteko eta ikerketako garapenerako.

3. Jardun-esparruak eta -eredua

Inguruko gizarteari garatzen laguntzea da Orona Fundazioaren helburua, gizarteari on egiten diona Oronarentzat berarentzat ona delakoan.

Bere ingurua hainbat ikuspegitik garatzea da Orona Fundazioaren asmoa: sozioekonomia, kultura, hezkuntza, gizartea eta kirola. Horretarako, eredu proaktibo bat du oinarri, gizarte-eragileekin batera proiektuak lantzean oinarritua, eta **bere azpiegiturak, harremanak, giza kapitala eta**, beharrezkoa bada, **funts-bilketa jartzen ditu**.

Orona Fundazioak, barne-zerbitzua eman nahi duen aldetik, badu beste helburu nagusi bat: Oronako giza kapitalaren garapen integrala.

Barruko eta kanpoko helburuen ikuspegi orokorra du gidari fundazioak, eta, hala, funtzionamenduari koherentzia ematen zaio.



4. Barne-garapena

Oronak, jakintza sortzeko, elkarlanean aritzeko inguruneen alde egin du, betidanik. Orona Ideo eredu hori indartzeko sortu zen.

Teknologiari begiratzen dioten **unibertsitateek** ikertu egiten dute, ezaupide berriez jabetzeko eta haiek produktu, prozesu eta zerbitzu berrietan baliatzeko.

Teknologia-zentroak, berriz, ikerketa aplikatuaren aroko liderrak dira, eta zientzia aplikagarria dela eta produktu eta prozesuak berritzeko gai direla frogatzea dute helburu.

Enpresak, aldiz, emaitzak produktu eta prozesuen berrikuntza bihurtzen dituen industriaurreko ikerketaren lider dira, eta emaitzak industrializatzea eta berrikuntza barneratzea ziurtatzen dute.

Barne-garapenaren alorrean, Orona Fundazioaren jardura guztiak biltzea du helburu, Oronaren giza kapitala aberastearen ikuspegitik.

Azkenik, **liburutegian**, hezkuntza-arloko eta inguruko garapenaren alorrean, ezaupideak sortzeko jarduerak egiten ditugu.

5. Kanpo-garapena

Komunitatearen garapenarekin lotuta, fundazioaren helburua da bere ekintza bere jardun-eremutik hurbilen dagoen ingurunean zabaltzea, gizarte-eragileen bidez.

5.1 Erakunde-arlokoa

Erakunde-arloan garatzeko lan-ildoak jorrazteko, elkarlanean aritzen gara askotariko erakundeekin:

- Nazioarteko, estatuko, eskualdeko eta tokiko erakundeak.
- Administrazio publikoak (ministerioak, aldundiak, udalak, etab.)

Zuzendaritza Nagusiari laguntzeko, fundazioaren izaeraren beraren ondorioz, erakunde-eragileekin harremanetan egon gara egunerokoan. Bereziki, Donostiako Herritarren Kontseiluan, Donostiako Plan Estrategikoan eta Beterri garapen-agentzian.

Pandemiaren ondorioz, ez da laguntzarik eman negozio-eremuarekin lotutako bisitetarako.

5.2 Orona Ideo

Orona Ideoren garatzeko lan-ildoaren helburua da unibertsitate-munduarekin harremanak ezartzea, bereizgarri paregabe hauek dituen proiektu bat garatuz:

- Fakultate-eredu tradizionalarekin haustea, eta jakintza-arlo bat baino gehiago hartzen dituen gune bat eratzea.



- Lan-arloarekin lotzea, eta bermatzea ikasketak baliogarriak izango direla lanean.
- Estatuko nahiz nazioarteko hainbat unibertsitate eta hezkuntza-erakunderen esperientziak eta ereduak barneratzea.
- Etengabeko prestakuntza ezartzea, lan-ibilbide osoan trebakuntza bermatzeko.

2020ko irailean, zazpigarren promozioa sartu zen Mondragon Goi Eskola Politeknikoak (Mondragon Unibertsitatea) Orona Ideon ematen dituen graduetan. Egun, hauek dira ikasle-kopuruak:

Ingeniaritza-maila	Guztira
Energia	102
Ekoteknologia Industrialak	94
Enpresa Berrikuntzako eta Proiektuen Zuzendaritzako Masterra	40
Industria Masterra	72
Zibersegurtasuneko Masterra	10
Guztira	318


5.3 Ingurukoa (Orona Fundazioa Gizarterantz)

Ingurua garatzeko lan-ildoak dago zuzenki errota tokiko gizartearen, haren garapena hainbat ikuspegitatik sustatzea baitu helburu.

- Orona Fundazioak bere inguruan aberastasuna sortzen lagundu nahi du.
- Kultura eta gizartea garatzen lagundu nahi du Orona Fundazioak.
- Ikasleei unibertsitatean hasi aurreko orientabide akademiko eta profesionalarekin lagundu nahi die Orona Fundazioak.

Bidasoaldeko, Oiartzualdeko eta Donostialdeko 300 bat eragilerekin harremanetan egon da Orona Fundazioa; tartean, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitate-mailako 50 ikastetxerekin.

Fundazioaren jardueren gaur egungo inpaktua



6. Ekarpeneredua

Ekarpeneredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta baliabide finantzarioak.

Oronak bere fundazioa sortu du bere gizarte-ekintzan berritzeko tresna izan dadin; kooperatiba denez, bere Kontseilu Sozialaren irizpideei jarraikiz diru-ekarpenerak egiten ditu jada, eta, hala, fundazioaren lana gehitzen zaie ekarpenoi.



7. Proiektuak eta jarduerak

7.1 Diametro 200

Orona Fundazioak bere barruko lan-ildoari leial jarraikiz sortu du proiektu hau.

Oronaren Hernaniko instalazioetan Orona Ideoren ekosistema osatzen dugun pertsonen elikadura-zerbitzu on, garbi eta bidezkoa ematea da proiektu honen xedea.

Oinarri hauek ditu proiektu horrek:

1. Oronak elikagai natural eta osasungarriak ematen dizkie langileei. Filosofia horren barruan, lehentasuna izango dute sasoiko eta inguruko produktuek; batez ere, ekologikoki ekoizitakoek.




2. Oronak lehen sektoreko eragileekin lan egiten du, eta, tokiko produktuak lehenesten dituzenez, enplegua finkatzen eta sortzen laguntzen du. Azken batean, aberastasuna sortzen du inguruan, fundazioaren helburuekin bat.

Orona menua

Gure Elikagai SLren bidez, Oronak 0 kilometroko produktuetan oinarritutako elikadura-eredu osasungarri bat eskaintzen die Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileei eta Diametro 200 jatetxera etortzen diren kanpoko bezeroei.

2020an, nabarmen pandemiak markatutako egoeran, ez da galera kualitatiborik izan ereduan. Zenbait banaketa-kanalen itxiera (HORECA, bereziki) jasan duten tokiko enpresa hornitzaileek beren ekoizpenei irtenbidea ematen jarraitu ahal izan zezaten lan egin da; hala, ingurunearen garapen sozioekonomikoari eta kohesio sozialari lagundu zaio.

COVID-19aren testuinguruan, kantina martxan egon da, baina barne-erabilera pribaturako bakarrik; beraz, langileentzako elikadura-zerbitzu osasungarria izaten jarraitu ahal izan dugu.





Jakioro elikadura-ekimena saritu dute Elkartasun sarietan.



Jakioro ekimeneko janari-errazioak.

Etxera eramateko janaria eta fruta kafe-guneetan

Ekimen hauek Oronako langileen artean kultura osasuntsua bultzatzeko neurrietako bat dira: eguneroko menua etxera eramateko aukera dute langileek, eta nekazaritza ekologikoko frutak eskura izaten dira.

Karabeleko: Baratzeko terapia

Karabeleko lursail agroekologiko bat da, eta Diametro 200 jatetxearen barazki freskoen hornitzaile nagusia da. Berezitasun bat du: gaixotasun mentalak dituzten pertsonen lan egiten dute han.



Karabeleko kontsumo-taldearen otarrak.

Karabelekok, osasun mentaleko arazoak dituztenei laguntzeko xede terapeutikoa betetzeaz gain, hurbileko merkatua bultzatzen du, eta biodibertsitatearen aldeko lana egiten du, barazki-, fruta- eta lekale-barietateak berreskuratzen baititu. Laguntza finantzarioa ematen diogu proiektuari pandemia-garai hauetan.

Baratzea etxean

Hernaniko Orona Ideo, Epele eta Lastaolako langileen artean kontsumo-talde bat dago, eta astero Karabeleko lursail agroekologikotik datorren barazki ekologikoen otarra jasotzen dute. Oronako 40 bat lagunek hartzen dute parte ekimenean.

Azpimarratu behar da pandemia-garaian ere Karabeleko lursail agroekologikoarekiko lankidetzaz sustatzen jarraitu dela, etxeko itxialdian Oronako kontsumo-taldeko kideen etxetara barazki ekologikoak eta sasoikoak eramaten jarraitu ahal izateko, ezinezkoa baitzen haiek Oronaren instalazioetan jasotzea.

Jakioro elikadura-proiektua: Oronaren konpromiso soziala

Pandemiak sortutako egoerak distortsioak eragin zituen baserri eta landetxeetan ekoiztutako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko ohiko bideetan; batez ere, HORECA kanalaren mende daudenetan.

Ondare immaterialaren proiektuaren ildoak

Kanal hori erabat inaktibo egonda, beste merkaturatze-kanal antolatuturik ez zuten produktuak galtzeko arrisku handia zegoen.

Bestalde, osasun-krisiak kolektibo ahulenen gizarte-beharrak handitzea eragin zuen, eta, aldi berean, elkartasuna sustatu zen, Eusko Jaurlaritzak dinamizatutako Guztion Artean ekimenaren bidez.

Testuinguru horretan, HAZI (Eusko Jaurlaritzaren mendekoa) eta Orona fundazioek JAKIORO proiektu solidarioa jarri genuen martxan, bertako baserriko produktuetan oinarritua. Elikagaiak jatorrian jaso ondoren, lehen platerak, bigarren platerak eta postrea egiten ziren Orona Ideoren Hernaniko instalazioetan, eta, gero, banatu egiten ziren prestatutako plater horiek; egunero 2.000 errazio egiten ziren.


Apiriletik urrira bitartean, 222.305 errazio banatu dira behartsuenen artean. Elikagai horiek Euskadiko Gurutze Gorriari eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuari eman zitzaizkien.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Deia egunkariak (elkartasun sariak/premios solidarios) saritu egin dute Orona Fundazioak gizartearekin hartutako konpromisoa, zeina elkartasun-ekimen horretan islatzen baita.

7.2 Kultura musikala

Musika elementu kultural gisa hartuta ingurunea garatzea oso egokia da, gure ingurunea lehendik ere musikan hain aberatsa izanagatik.

Orona Fundazioak, kultura musikalaren proiektuaren bidez, inguruneko musika-erakundeen parte aktibo izan nahi du, inguruneko gizartearekin lotura eduki nahi baitu eta horrek aukera ematen baitio fundazioari zenbait kolektibotatik gertuago egoteko.



Judith Jaureguiren kontzertua.
Beethovenen urteurrena

Ludwig van Beethoven sortu zeneko 250. urteurrena dela eta, Orona Fundazioak Donostia Musika elkarteari lagundu nahi izan dio urteurren hori ospatzeko antolatutako pianorako sonaten ziklo integrarean; zehazki, maiatzaren 2lean Judith Jauregui pianistak Victoria Eugenia antzokian egindako kontzertua babestu zuen.

Oinarrizko jarduera korala

Diruz lagundu ditugu Donostiako Orfeoiko eta Landarbaso abesbatzako gazteenei zuzendutako jarduera koralak.

7.3 Ondare immateriala

Talde baten kultura-ondarea osatzen duen ondasun ukiezin oro da ondare immateriala. Fundazioak, proiektu honen bidez, inguruko lurraldeko ondare immaterialaren balioa nabarmendu nahi du; historia eta tradizioak ikusgai jarri nahi ditu, zibilizazio unibertsalari ekarpen bat egiteko.

Ondare immaterialaren proiektuaren ikuspegi orokorraren arabera, ondare horrek bizirik jarraitu behar du gure gizartean, ekarpen gisa eta etorkizunerako begirada gisa.

7.3.1 Mendia


Mendiari dagokionez, mendizaletasunaren garrantzia azpimarratzea da fundazioaren xedea; hau da, mendietako eta haiekin lotutako jarduerekin lotutako ondare historikoa gorde, zaindu eta erakustea. Fundazioaren ikuspegia, berriz, mendizale-jarduera jende gehiagorengana helaraztea da, gazteengana batez ere.

Euskal mendizaletasunaren historia

Euskal Mendizaletasunaren Museoa Fundazioak (EMMOA) diziplina anitzeko ahalegin handi bat egiten du euskal mendizaletasunaren ondare historikoa zaintzeko eta gizaritari erakusteko. Orona Fundazioak babes ekonomikoa ematen dio EMMOARI, hark ondare immateriala berreskuratzeko eta, bereziki, zaharreneen testigantzak jasotzeko egiten duen ahaleginagatik.

CVCEPHOTO

Orona Fundazioa lankidetzan aritzen da Club Vasco de Camping Elkartarekin (CVCE), mendizaletasuna gazteen artean ikusgai jartzeko. CVCErekiko



“San Juan” baleontzia eraikitzen Albaolan.

harremanak epe luzerako ikuspegia du; horregatik, mendiaren balioa azpimarratzeko jarduera batzuetan parte hartzen du Orona Fundazioak; adibidez, CVCEPHOTO mendiko argazkien nazioarteko lehiaketan, zeinak, sei edizio besterik ez izan arren, ospe handia hartu baitu nazioartean.

7.3.2 Itsasoa

Itsasoari dagokionez, Orona Fundazioak balioa eman nahi dio ontzigintzari buruzko jakintzak joan diren mendeetan Euskal Herriko gizartearentzat izan zuen garrantziari, mundura zabaltzea erraztu baitzuen.

Oronak bat egiten du garai hartako gizarteko balioekin; izan ere, konpainiaren egungo estrategiaren ardatzak dira, besteak beste, berrikuntza teknologikoa eta nazioartera zabaltzea.

Albaola

Albaola Fundazioak eta Orona Fundazioak balio eta helburu batzuk partekatzen dituzte, eta, horren ondorioz, etengabeko lankidetzaren harreman bat sortu da bi fundazioen artean, helburu komun bat dutela: ingurunearen garapena bilatzea, hain zuzen ere, ingurune berekoak baitira biak.

Kasu honetan, Pasaiko badiaren ingurunearen garapenean lagundu nahi da, eskualde horrek suspertze sozioekonomikoa behar baitu, baliabide turistiko, kultural eta ekonomiko berri baten inguruan.

2020an, beste 5 urterako luzatu da lankidetzaren hitzarmen bidez, *San Juan* itsasontziaren erreplika eraikitzen laguntzeko eta pandemiaren ondoren museoaren jardura sustatzeko.



Nazioarteko argazki-lehiaketaren kartela.

Duela mende batzuk euskaldunek itsasketa-teknologiaren eta itsasontzigintzaren inguruan izan zuten ezagutzak eta nagusitasunak euskal gizartean zer-nolako indarra izan zuen nabarmentzen dute Albaolak eta, zehazki, *San Juan* baleontzia eraikitzeke ekimenak.

Nabarmentzekoa da *San Juan* baleontziaren funtsezko pieza bat babestu duela Orona Fundazioak: dibidieta, hau da, antzinako karga-jasogailu bat. Masta nagusiko gabia ere babestu du Fundazioak.

Orona Fundazioak Albaola Itsas Kultur Faktoria berritzen lagundu du: museo bizi eta gizatiar bat da. Kooperatibak irisgarritasun-azpiegituraz hornitu zuen Oiarzualdeko ekipamendu kultural berria.

Orona Fundazioak eta Albaolak askotariko lankidetzaz-ildoak dituzte; gaur arte, besteak beste, espazioak partekatu dituzte, eta gizarte-bazterketako arriskua duten pertsonen proiektuan sartzeko bidea errazteko kanpainak diseinatu dituzte.

Bi erakundeen arteko lankidetzak emaitzak eman ditu. Batetik, Orona San Juan sareko kide bilakatu da, eta, bestetik, Oronako langileak Faktoriara bisitan joan ohi dira.

Elkano-Mundubira

Orona Fundazioak babeserik ematen dio Elkano Mundubira Fundazioari, Sevillako Indietako Artxibo Nagusian ikasteko beka bat finantzatzuz.

7.3.3 Pilota

Pilotaz ari garela, hainbat modalitate bultzatu nahi ditu fundazioak, antzinakoak barne, jendeak ezagut ditzan. Era berean, hau da fundazioaren ikuspegia: funtzio pedagogikoa ematea pilotari, pilota-eskolak sortzen laguntzea eta ikasleen artean eskola-kirol nagusietako bat izatea.



Binakako 50. erremonte-txapelketaren aurkezpena.

Erremontea

Orona Fundazioaren iritziz, pilota ere bada kultura-ondarea, eta hor sartzen da erremontea. Nafarroako eta Gipuzkoako modalitate hori bi frontoitan bakarrik jokatzen da: Galarreta frontoian (Orona Ideoren aurrez aurre dago) eta Uharteko Euskal Jai Berri frontoian.

Erremontea xistera erabiltzen duen euskal pilotaren modalitate ikusgarrienetako bat da. Pilotariak, teknika erabiliz, abiadura handian jotzen du pilota xisterarekin eskuaren parean, eta xisteran gorantz abiarazten du, puntatik atera arte.

Antiguako Pilotazaleok txapelketa

Orona Fundazioaren dirulaguntzari esker egiten da Antigua auzoko udako pilota-txapelketa, Donostian. Amateur mailako pilota-txapelketa zaharrena da.

7.3.4 Euskara

Euskara Europako kulturaren aktibo bat da. Orona Fundazioak ahalegina egin nahi du euskara hizkuntza normalizatu izan dadin, euskara ikasten dutenek beste hizkuntza batzuk ikasteko dauden baldintzak eta mekanismoak izan ditzaten eta, halaber, gazteen artean irakurtzeko zaletasuna zabaldu dadin.



Dokumentalaren kartela.



Eduardo Chillidaren "Argiaren Bila" obraren zaharberritzea.

Proiektu pedagogiko berriak I

Orona Fundazioak bere instalazioak uzten dizkie Ikastolen Elkarteari, Berritzeguneari (sare publikoa) eta beste ikastetxe batzuei, irakasleentzako trebakuntza-saiοetarako.

Laneki Jakinbai.eus

2020an ere, Lanbide Heziketako materiala euskaraz sortzea sustatu da Jakinbai programaren bidez.

Oxigenoa euskarari 6000 metroan ere

2019ko espedizioa finantzatu ondoren, sherpa eta euskara hizkuntzak partekatzen dituzten gazte batzuen bizi-esperientziaren berri ematen duen dokumentalaren proiektioak egin ziren gazteentzat, publiko orokorrarentzat, eta, bereziki, Oronako kideentzat.

7.3.5 Euskal zibilizazioa


Azkenik, **euskal zibilizazioari** dagokionez, fundazioak iraganeko alderdi garrantzitsu batzuei buruzko dibulgazio-guneak ireki nahi ditu.

Eten barik jotzen

Diruz lagundu da proiektu dokumentalista. 2020an argia ikusi duen dokumental horrek gure historiari begiratu, eta emakumezko pandero-jotzaileetan jartzen dugu arreta, eta haien bidez erakusten du zer-nolako borroka egin zuten emakumeek beren eskubideak lortzeko eta eremu publikoan agertzeko.

Argiaren bila

Orona Fundazioak artearekin eta kulturarekin duen konpromisoaren esparruan, ekainean



Oronak Eduardo Chillida artistaren eskultura-lan enblematikoenetako baten zaharberritzea babestu zuen.

“Argiaren bila” da obra, eta 8 metroko altuera eta 20 tonako pisua ditu; zerura irekita dagoen kubo bat irudikatzen du, eta itsas olatu moduan kurbatutako irekiera batean amaitzen da. Altzairuzko hiru xaflaz osatuta dago; guztiz asimetrikoak dira, eta torlojuz eta errematxez lotuta daude elkarri. Xafla horiek inguratzean, bi ikuspegi desberdin eta kontrajarri lortzen dira: betea eta hutsa. Atzeko aldetik, pieza trinko bat ikusten da, zerurantz harro hazten dena.

Espazioak, Chillidaren aburuz, irisgarria izan behar zuen. Hiru astean egin ziren zaharberritze-lanak, eta torloju eta errematxe berriak jarri zitzaizkion pieza handi bati.

Lan horiei babes emanda, Orona Fundazioak omenaldia egin nahi izan die COVID-19ak eragin dien guztiei, gure garaian aurrekaririk ez duen testuinguru pandemiko honetan argia bilatzeko sinbiosian.

7.4 Akademikoa

Teknologia berriak iritsi dira, eta eguneroko bizitzan ugaritu egin da haien erabilera. Horrek aldaketa handiak ekarri ditu hezkuntza-paradigma eta -eredu tradizioaletan, eta irakasleen nahiz ikasleen rola aldatzen ari dira.

Mundu guztiko hezkuntza-sistemek aldaketa handiak izango dituzte datozen urteetan. Orona Fundazioak, hori guztia kontuan izanda, konpromiso bat hartu du, eta proiektu akademikoa sortu du.

Fundazioak hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi du ikasleei gaitasun berriak garatzen laguntzen dieten irakaskuntza-erakundearen artean.

Horretarako, Orona Fundazioak, proiektu akademikoaren barnean, aldaketarako onuragarriak izango diren edukiak eman nahi dizkio inguruko hezkuntza-komunitateari.

Proiektuaren ikuspegi orokorraren arabera, aldaketa erreal eta iraunkorrak sortu nahi dira hezkuntza-ereduan.

IdeoLab Campusa (Kultura digital@)

Ideolab campus teknologiko bat da, eta Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporretan egiten da. 5 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta kultura digitala eta programazio-prozesuaren sozializazioa garatzea du helburu, helduak direnean mundu teknologiko batean moldatzeko beharko duten logika bat konfiguratzeko oinarri gisa.

Aurten, pandemia dela eta, Orona Ideotik kanpo egin behar izan da udako edizioa; zehazki, Hernaniko Inmakulada ikastetxean egin dira, horretarako espazioak laga baitzizkigu.

PBLday

Martxoan, Mondragon Unibertsitatearen bultzadarekin, PBLday ospatu genuen.

Problem Based Learning (PBL) metodologiak benetako arazo bati irtenbidea ematen dioten proiektuak egitean oinarritzen du ikasketa. Horri esker, ikasleek eginez ikasten dute.

Unibertsitate horrek Orona Ideon duen ingeniari-tza-fakultateko ikasleak protagonista izan ziren egun batez. Hogeita hamar bat proiektuaren artean, onena saritu zuen Orona Fundazioak.



PBLday topaketan sarituak.

Zinetek

Orona Fundazioak helburu du ikasleei trebakuntza konbentzionala osatzeko balio dieten jarduerak sustatzea. Gazteek beren gaitasunak hobetu ditzaten eta espiritu kritikoa gara dezaten nahi du fundazioak.

Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleei zuzendutako proposamen bat da Zinetek, Orona Fundazioaren eta Donostiako Zinemaldiaren arteko lankidetzari esker sortua.

Ikasleei proiektzioetan ageri diren gaiak bistarazi nahi zaizkie, beren bizitza profesional osoan topatuko baitituzte —bereziki, teknologia—. Hori guztia, kalitateko film hautatu batzuen bidez. Balio pedagogiko erantsi gisa, ikasleek aurkezten dituzte filmok. Ondorengo eztabaida ere ikasleek berek zuzentzen dute.

Gazteek profesionalekin lan-bilerak egitea nahi dugu (kasu honetan, Donostiako Zinemaldikoekin), eta taldean lan egiteko eta komunikatzeko gaitasunak eta trebetasunak garatzea.

2020an, seigarren edizioa egin da. Pandemia dela eta, 5 saio egin ziren, 6 egiteko asmoa bazegoen ere. 9 ikastetxetako 725 ikaslek hartu dute parte.



"Catdog", NEST Film Students-eko sari nagusia.

Donostiako Zinemaldia (SSIFF), Orona-NEST Film Students saria

Orona Fundazioak Donostiako Zinemaldiari lagundu nahi dio, jarduera kultural nabarmen eta estrategikoa baita inguruneko garapen kultural, sozial eta ekonomikorako.

2019tik, babesle nagusia da fundazioa, eta berak ematen du NEST Film Students-eko sari nagusia.

2020an, Ashmita Guha zuzendari indiarrek zuzendutako *Catdog* filmak irabazi zuen.

Orona Fundazioak, gainera, gai horretan bokazioa duten gazteen partaidetza sustatzen du; hainbat motatako ekitaldietan hartzen dute parte, hala nola ikasgai magistraletan, hizketaldi eta ikustaldietan, lantegietan eta topaketaren inaugurazioan eta itxierako jaietan.

Etiket Programatzen

Kode-eskola gure kolaboratzaile eta IDEOLAB campus teknologikoetako lankideari proiektu berri batean lagundu diogu: bideo-pilulen eta onlineko tutoretzaren bidez, gazteak programazioaren mundura hurbildu ahal izango dira, baina etiketik, ekitaldiak aurrez aurre egitea eragozten baitu pandemiak.

Laguntza ikastetxeetako koru-eskolei

Oronak Donostiako Orfeoia (bazkide babesleak gara) eta Landarbaso abesbatza babesten ditu, eskoletan ikasteko baliabide gisa sustatzen baitituzte kultura musikala eta musika. Zehazki, eskoletan koru-eskolak ematea sustatzen eta laguntzen dute.

Ficab

Orona Fundazioak laguntza ematen dio Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoari: auditoriuma uzten dio sail akademikoko ikus-entzunezko lanak emateko, eskola-umeek arkeologia ezagut dezaten. Aurten onlineko tresnen bidez egin da. Gainera, hezkuntza-atalak gure erakundearen izena hartu du.

Ikasleen bisitak Orona Ideora

Lanbide-heziketako, batxilergoko eta unibertsitateko ikasle eta irakasleak Orona Ideora joaten dira, besteak beste enpresaren ibilbidea, haren negozio-eredua, estrategia eta datuak bertatik bertara ezagutzeko. Aurten bizi izan ditugun egoera soziosanitario ezohikoak direla eta, 3 ikasle-talde bakarrik hartu ditugu.

The Egg, adimen artifizialeko eskola

Oronak bere fundazioaren bidez bultzatu eta Skootik startup-ak sortutako The Egg adimen artifizialeko eskolaren helburua da datu-analisten eta adimen artifizialeko espezialisten masa kritiko bat osatzea. Hala, gure ekonomiari balio teknologikoa emateko gai diren adituen kopurua biderkatu egingo da.

The Egg adimen artifizial etikoaren lehen eskola da, doakoa eta irakaslerik gabea, non ikasle izateko ez baita beharrezkoa alde aurretiko ezaupiderik izatea. “Learning by doing” motako eskola da; hots, ikasleek pixkanaka ikasten dute, mailaka multzokatutako zereginak gaintuz, eta guztiek gaintitu behar dute mailaz igotzeko eskatzen den gutxienekoa. Talde-lana giltzarri da, eta esperientzia gutxien dutenek goragoko mailetakoen laguntza izango dute zalantzak argitzeko.

Orona Fundazioan dago The Egg adimen artifizialeko proiektuaren egoitza akademikoetako bat, eta ekonomikoki ere laguntzen dio proiektuari, gela horretarako ekipamenduak jarritz.



Oronak eta Skootikek elkarlanean sortu dute The Egg, adimen artifizialeko eskola.

Laneki Jakinbai.eus

Lanbide Heziketako materiala euskaraz sortzea sustatu da Jakinbai programaren bidez.

Zinema ikasgelan

Arlo akademikoko jarduera bat izateaz gain, kohesio sozialaren arloko jarduera ere bada hau; izan ere, etorkinen ehunekoa handia den ikastetxe bateko neska-mutikoekin egiten da. Ikasleek film bat egiten dute, zeinak gero parte hartzen baitu Begiradak - Las otras miradas jaialdian.

Proiektu pedagogiko berriak

Orona Fundazioak diruz laguntzen dio Kilometroak jaiari, jakinik gero diru hori instalazioak egokitzeko erabiliko dela —ikasle bakoitzeko metro koadro gehiago eta balioaniztasun handiagoa—. Horretaz gain, bere auditorioa uzten die Ikastolen Elkarteari, Berritzeguneari (sare publikoa) eta beste ikastetxe batzuei, irakasleentzako trebakuntza-saioetarako.

7.5 Kohesio soziala

Talde bateko kideen artean elkarren arteko batasuna bultzatzen duten loturak sortzen direnean, gizarte-kohesioa dagoela esaten da. Gizarte-kohesioa sortzeko, funtsezko balioetat hartu behar dira inklusio soziala, kapital soziala eta mugikortasun soziala.

Pertsona guztiek aukera-berdintasuna izateak irudikatzen du inklusio soziala. Kapital soziala, berriz, pertsonen eta erakundeen artean konfiantza izatea eta gizarte bateko kide izatearen sentimendua izatea da. Azkenik, pertsonak aurrera egiteko duten aukera-berdintasunean ikusten da mugikortasun soziala.

Gizarte-kohesioa lortzeko, gizartea osatzen duten eragileek elkarrekin parte hartzea eta lankidetzat aktiboa behar dira. Horrek esan nahi du komunitateak ez ezik erakunde publikoek eta pribatuek ere parte hartu behar dutela gizarte kohesionatua lortzeko, eta hala egiten du Orona Fundazioak.

Orona Fundazioak bazterketa-arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzearen alde lan egiten du; tokiko kolektiboaren partaidetza-sentimendua indartzen eta bere harreman-sareko eragileen arteko lotura sustatzen saiatzen da. Helburua da harreman eta sinergia berriak sortzen laguntzea, haien ondorioz ekimen berri eta sozialki berritzaileak sor daitezkeen eta fundazioaren jardueraren zuzeneko eta zeharkako eragina areagotu dadin.

Pertsona guztiek beren lekua duten gizarte garatu bat lortzea da proiektuaren azken ikuspegia. Eta fundazioaren ikuspegia da batasuna eta berdintasuna sustatzea.

Hemen posible da, "Begiradak- Las Otras Miradas" zinemaldia

Zinema adierazpide bat da Oronarentzat, eta adieraztea da, hain zuzen, Begiradak zinemaldiaren helburua.

Ikasleek eta gizarte-erakundeetako kideek parte hartzen dute zinemaldi honetan. Jarduerak bukatzeko, Zinema eta Hezkuntza Foro bat eta itxiera-ekitaldi bat egiten dira, sari-banaketarekin batera.

Jarduera horiek Ikertze kultura-elkarteak antolatzen ditu. Orona Fundazioak proiektuaren filma egiten lagundu du.

Desgaitasunak dituzten haurrentzako udako campusa

Zazpigarren urtez jarraian, Hegalak Zabalik Fundazioak, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin batera, 2020ko udako campusa antolatu du Donostian, ezintasunak dituzten neska-mutilentzat (8 eta 12 urte bitartekoak) eta gazteentzat (12 eta 21 urte bitartekoak).

Uda iristen denean, familia horiek askotan saiatzen dira beren seme-alabek parte har dezaten hainbat udalerritan proposatzen diren udako jardueretan. Hala ere, toki gehienetan ezin dute halakorik egin, besteak beste, begiraleek prestakuntzarik ez dutelako, arreta-ratioetan hutsuneak daudelako edo ezgaitasun konplexuagoak dituzten haur eta gazteen dibertsitatea eta ezaugarriak kontuan hartzen ez dituztelako. Orona Fundazioak diruz laguntzen ditu halako jarduerak.

Ongi etorri eskolara

Gipuzkoako ikastetxe publiko eta pribatu batzuek integrazio-dinamika bat jarri dute abian, bertako familiek eta etorkinenean aisialdia elkarrekin igarotzea oinarri hartuta. Albalarekin elkarlanean, Euskal Itsas Faktoriako tailer batzuk jarri dira martxan.



Begiradak Nazioarteko Zinemaldi Amateurra.

ARI ! Sormena eta mugimendua.

Hainbat arrazoiengatik aisialdia modu normalizatuan esperimentatzeko aukerarik ez duten nerabeentzako jarduera bat da. Kasu askotan, eskola-kirola uztean sortzen dira halako hutsuneak. Bizipoza eta Artaziak taldeek arte bisualaren eta arte biziaren bidez eta mugimenduaren bidez garatutako jarduera fisiko eta erlazional inklusiboekin, aukera txiki bat eskaintzen zaie nerabe batzuei.

TRAKZIONA-BIRSORTU

TRAKZIONA proiektuak ekonomia zirkularraren kultura sustatzen du, zeinean enpresa eragileak kontzeptu horrekin lotutako jarduerak sustatzen saiatzen baitira, beste enpresa txikiago batzuen eredu izan daitezten.

Hik Hasi-k diseinatutako hezkuntza-proiektu batean erabil daitekeen hondakinaren bat bideratzea da asmoa.

Emausekin dugun lankidetzari esker, hondakinak ikasleen ingurumen-hezkuntzarako erabiltzen dira ikastetxeetan. Proiektuak Birsortu du izena. Zehazki, instalatzeko egokiak ez diren botoiak bideratzen ditugu helburu akademiko horietarako.




Birsortu proiekturako Oronaren kabina-botoiak.


Aita Mari, dokumentala

2018az geroztik ari gara elkarlanean Itsas Salbamendu Humanitarioarekin, *Aita Mari* ontziak Erdialdeko Mediterraneoan egiten duen lana babestuz, han bizitzak salbatu baitituzte. Orain, Santi Donaire fotokazetariaren dokumentala egiten lagunduko dugu; lan horren lekukotza jasotzeko.


Proiektuen garrantzia, egindako jarduera-kopuruaren arabera



Inbertsioa proiektuka



Orona Fundazioaren jardueren onuradun nagusiak



8. Kudeaketako beste alor batzuk

8.1 Ekitaldien kudeaketa

Orona Ideo topagune bat da inguru hurbileneko eragileentzat. Horrez gain, hirugarren batzuen ekitaldiak ere egiten dira han.

Arlo soziosanitarioan hain zaila izan den urte honetan, jarduerak ahalik eta gehien murriztu diren arren, honako hauek egin dira:

- 47 bilera edo ekitaldi.
- 1.400 bisitari inguru.

8.2 Oronaren elikagai-zerbitzuaren kudeaketa

Hernaniko egoitza korporatiboan (Orona Ideo) Gure Elikagai SL enpresak Diametro 200 Slow Kafetegia ireki zuenetik Oronaren emakida bidez, eta Lastaolan ere eredu hori ezarrita, jatetxe- eta kafetegi-zerbitzu hauek eman ditu 2020an:

- Oronako langileei:
 - Langileentzako *self-servicea*: 71.523 otordu
- Beste zerbitzu batzuk:
 - Otorduak kafetegian, kanpoko ekitaldiak (kafeak eta aperitiboak) eta Oronak antolatutako beste ekitaldi batzuk.

Gure Elikagaik otordu horiek guztiak emateko erositako lehengaiei dagokienez,% 74 bertako produktua, bertako eta sasoiko produktua eta/edo produktu ekologikoa izan da.

Orona 
Fundazioa
Foundation

Orona Ideo

Galarreta
Jauregi bidea, zk.g.
20120 Hernani (Gipuzkoa)

Latitudea: 43,275987
Longitudea: -1,986938

Tel.: +34 943335588
info@oronafundazioa.org
www.oronafundazioa.org